



OIARTZUNgo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Emaitzen txostena

Andoainen, 2017ko martxo.



1.	Sarrera	2
2.	Metodologia	4
	2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia.....	4
	2.2 "Oartzun, 2016" neurketaren fitxa teknikoa.....	9
	2.3 Laginaren osaera.....	17
3.	Erabilera Oartzunen, 2016. urtean: emaitza orokorra.....	20
	3.1 Hamar elkarrizketetatik ia sei euskaraz	20
	3.2 Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila.....	21
	3.3 Euskararen erabilera Oartzunen, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta	24
4.	Erabileraren bilakaera Oartzunen (2001-2016).....	26
	4.1 Euskararen erabilera-datua ez da aldatu azken bost urteetan	26
	4.2 Ezagutzaren bilakaera	27
5.	Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko beste herriekin alderaketa	29
	5.1 Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko herrien kale-erabileraren datuekiko alderaketa.....	29
	5.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera, Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako, Donostialdeko eta Oartzungo datuekiko-alderaketa.....	30
	5.3 Inguruko hainbat herririkiko alderaketa.....	31
6.	Zonaldekako emaitzak	33
	6.1 Zonaldeen araberako emaitzak	33
	6.2 Zonaldeen araberako bilakaera	34
7.	Hiztunen ezaugarrien araberako datuak	37
	7.1 Sexuaren araberako emaitzak	37
	7.2 Sexuaren araberako bilakaera.....	38
	7.3 Adinaren araberako emaitzak.....	39
	7.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera.....	41
8.	Euskararen erabilera eta haurren presentzia.....	44
	8.1 Haurren presentziaren araberako euskararen erabilera	44
	8.2 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera	47
9.	Datu nagusien irakurketa (laburpena).....	48



1. Sarrera

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak eskuartean izatea, balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika-arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuena eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Baina, testuinguru eleaniztunetan, euskararen kasuan bezala, hizkuntza baten edo bestea erabiltzea ez da jarduera arautua edota patroiz jakinei obeditzen diena. Horrenbestez, hizkuntzen erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu kaleko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale-erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko, eta, beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri-mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen da herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzeko garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (errolako ezagutza-datuak, ikastetxe eta euskaltegietako matrikulazio-datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen-planak egiterakoan eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakitea eskatzen du lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kaleko neurketen emaitzak beharrezkoak dira lehentasun horiek ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera-datu eskura daitezke neurketaren bidez, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa horiek maiztasunez eginez gero, bilakaera ezagutu ahal izango da, eta, modu horretan, herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzeko aukera izango da.



2. Metodologia

2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia


Oiartzunen egindako kale-neurketaren metodologia Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Neurketan garaturikoan oinarritua dago. 2.2. atalean azalduko diren fitxa teknikoko moldaketak soilik egin behar izan dira metodologia herriko berezitasunetara egokitzeko.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale-neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik bost alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, eta 2011n; 2016. urtean zazpigarrena egin baldin bada ere, emaitzak ez dira oraindik kaleratu, eta ezingo ditugu aurrekoekin alderatu, oraingoz. Nolanahi ere, azken neurketetan bezala, bost urtean behin egindako neurketak, besteak beste, erroldako datuekin batera aztertzeke aukera emango dute. Dagoeneko, beraz, hogeita bost urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dagoela esan daiteke, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusizat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak



(potenzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztien hizkuntza-jarduera estatistikoki neurtzeko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarritzko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, bakarrizketa gisa jasotzen ditugu elkarrizketa-mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua, non hitzun bakarraren informazioa jasoz biltzen den elkarrizketa-datua. Bestalde, normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da, eta beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen da kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, gehien erabiltzen duena alegia.

Fitxak

Neurketetan erabilera-datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen da. Material horren bidez, hitzunen ezaugarriak jasotzen dira, aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabilera duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera; ikus ondoren fitxa horren irudiak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
T: 943 592 556
kaleneurketak@soziolinguistika.eus

HERRIA: _____
IBILBIDEA: _____
EGUNA: _____ ORDUA: _____
NEURTZAILEAK: _____

OHARRAK: _____

	EUSKARA	GAZTEKERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa

	EUSKARA	GAZTEKERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
21	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
26	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
27	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
28	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
29	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
30	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
31	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
32	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
33	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
34	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
35	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
36	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
37	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
38	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
39	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
40	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
41	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
42	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa



“Oiertzuarren” erabilera baino gehiago, Oiertzungo kaleetakoa

Azaltzen ari garen metodologia honek badu muga bat: ezin da ziurtatu kalean hizketan ari diren hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen hizkuntza-erabilera dela esatea, izan ere, neurtutakoa herriko kaleetan jaso den erabilera da. Dena den, kasu batzuetan herrikoen erabilera hurbiltzen nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarrizketak modu berezitan jaso ditugu.

Erabilera-datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar da, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar da datu adierazgarriak jasotzen badira ere, euskararen kale-erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Horren arrazoia ulergarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, euren jarduera neurtzen diren hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

Adierazgarritasuna

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko garrantzitsua da laginaren tamainari begiratzea, behatutako elkarrizketa-kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta haurren presentzia) euskararen kale-erabileran duten eragina aztertzeke gutxieneko elkarrizketa-kopuru bat bete behar da adierazgarritasun hori lortzeko. Egia da sarritan gazteen adin-taldean, 15-24 urte bitartekoan artean alegia, kalean behar baino hiztun gutxiago behatzen ditugula; izan ere, adin-talde honen joera erdigunetik haragoko eremuetan biltzea da eta zailtasunak ditugu gure laginean hiztun profil hau txertatzen.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da, eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute beharrezkoa den gutxieneko elkarrizketa-kopurua ez bada jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeke lagin handia behar izaten da, izan ere, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu lagin txikiagoa gelditzen baita. Horrela, adibideari erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina biltzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez.

Oharrak

Atal honekin amaituz, hona hemen datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

Neurtzaileak

Neurketa **bikoteka** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina ego-kiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteari zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatu da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserretuz,...

Neurketa, ez inkestak

Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean. Kalean doazenez ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera", "frantsesa" eta "beste" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "beste" zutabean adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharreako da.
3. **Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
 1. Euskaraz laukian "X" markatu.
 2. Haurren zutabean, emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
 3. "Haurrak hitz egiten" zutabean "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelerez hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):
 1. Gaztelerez laukian "X" markatu.
 2. Haurren zutabean emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabean gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabean emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
 3. Haurrak hitz egiten zutabean "ez" laukian "X" seinaltatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelerez ari dira (**03 elkarrizketa**):
 1. Gaztelerez laukian "X" markatu.
 2. Gazteen zutabean emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
 3. Haurrak hitz egiten zutabean "ez" laukian "X" markatu.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

HERRIA: _____
 IBILBIDEA: _____
 EGUNA: **Urriak 08** ORDUA: **18:00-20:00**
 NEURTZAILEAK: _____

SOZIOLOGISTIRA KLUSTERRA
 T: 943 592 556
 kaleneurketak@soziolinguistika.eus

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten		
									BAI	EZ	
01	X				/	/				X	
02		X			/		/	/			X
03	X					2	3				X
04	X								2		X
05		X							2		X
06				X			/	/			X
07			X		2		/				X
08	X					/	/				X
09	X							/	/		X
10		X					2				X
11	X					4					X
12	X				/		/				X
13		X						3			X
14	X				2			/	/		X
15		X					2	/			X
16		X			/	/					X
17	X					2	/				X
18	X				/		/	/			X
19	X					3	/	/			X
20		X				/	/				X

| Emakumezkoa | Gizonezkoa



2.2 “Oiartzun, 2016” neurketaren fitxa tekniko

Prozedurak

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

Ibilbideak


Arestian aurreratu moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2016ko *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko ibilbideak bost zonatan antolatu ditugu. Jarraian bildu ditugu zehatz-mehatz ibilbide bakoitzean neurtutako kaleak:


2. Gurutze/Karrika/Ergoien: **Gurutze:** Gurutze hotela, Galdos taberna, Toki-alai taberna, kooperatibako etxeetako (Ixximu) parkea, frontoia, Bizardia. **Karrika:** Karrikako Artaso elkartea (frontoiaren) ingurua, atzeko parkea, etxe adosatuen ingurua, haurtzaindegi ingurua. **Ergoien:** Pagoaldea, Tornola kalea, Auzokalte elkartea eta Herri Musika txokoaren ingurua, frontoia eta Pagoaldea.

>Ibilbidea:
OIARTZUN (Gurutze/Karrika/Ergoien)

Hale Neurketa
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA




3. Altzibar: Autobus geltokia, Zuberua Jatetxea, Bekosoro Plaza, Ozentzio kalea, Zirauki kalea, frontoia, Bidezarra kalea (Orma Etxea), Bekosoro Plaza, Argiñene kalea.



4. Iturriotz: Autobus geltokia, Zuberoa Jatetxea, Bekosoro Plaza, Ozentzio kalea, Zirauki kalea, frontoia, Bidezarra kalea (Orma Etxea), Bekosoro Plaza, Argiñene kalea.

>Ibilbidea:
OIARTZUN (Iturriotz)


Hale Neurketa
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA




5. **Ugaldetxo**: Futbol Zelaia, Kalexa plaza, Matteo Jatetxea, Isasti Etxadia, Mendibil (Zilarkale kalea), Francisco Urdiñola kalea, Karaez kalea, Donostia plaza.

>Ibilbidea:
OIARTZUN (Ugaldetxo)

Kale Neurketa
>SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA



6. Arragua: Bus geltokia, Lartzabal Etxadiko dorreak, Alhambra taberna, atzeko haur parkea, Topoaren ingurua, Iturrine plaza, Ganboxa bidea, Larrezabaleta kalea, Goiko Eskolatik parbulariora, buelta atzera.



Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2016ko irailaren 21etik eta urriaren 22ra bitartean egin dugu, eta Oiartzungo kasuan neurraldi hauen arabera osatu da egutegia:


Elizalde	Irailak 21, asteazkena	18:00 – 20:00	Altzibar
	Irailak 22, osteguna	11:00-13:00 / 18:00-20:00	
	Irailak 24, larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00	
Gurutze, Karrika, Ergoien	Irailak 28, asteazkena	18:00-20:00	Iturrioz
	Irailak 29, osteguna	11:00-13:00 / 18:00-20:00	
	Urriak 1, larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00	
Arragua	Urriak 5, asteazkena	18:00-20:00	
	Urriak 13, osteguna	11:00-13:00 / 18:00-20:00	
	Urriak 15, larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00	
Ugaldetxo	Urriak 19, asteazkena	18:00-20:00	
	Urriak 20, osteguna	11:00-13:00 / 18:00-20:00	
	Urriak 22, larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00	
NEURKETAN IGAROTAKO ORDUAK: 60 orduko neurketa			

Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

Unibertsoa: Oiartzungo kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

Lagina: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun **1.449 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **4.230 herritarrek** osatu dute lagina¹.

¹ EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2011n Oiartzunen 9.755 herritar bizi ziren.



Akats-tartearen kalkulua (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): Akats-tartea bertakoen datuekin kalkulatu dugu. **±%2,56**koa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan.

2.3 Laginaren osaera

Behatutako 1.449 elkarrizketa eta horietan solaskide izan diren 4.230 herritarren ezaugarriak jakitea beharrezkoa da unibertsoaren ordezkagarritasuna aztertzeko garaian. Hau da, gure azterketarako laginaren osaerari erreparatzea garrantzitsua da oiartzuarren ezaugarriak modu berean bildu ote diren jakiteko eta zer nolako akatstartea dugun jakiteko. Beraz, laginaren osaerari erreparatuz, azterketan egin dezakegun akats tartearen balorazio bat egingo dugu.

Dena den, laginaren osaera eta oiartzuarren adin-tarteen proportzionaltasunaren alderaketa neurri batean da kontuan hartzekoa, izan ere, ez baita bere horretan gure helburua herritarren erabileraren argazkia ateratzea, baizik eta Oiartzungo kaleetan entzuten den erabilera neurtzea. Kaleetan entzuten diren elkarrizketak ez dira soilik herritarren artekoak izaten, eta elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak ez dute zertan herritarrek dituzten ezaugarri berberak izan beharrik.

Adin-tarte osaera


Lagina osatu duten hiztunen adinean jarriko dugu arreta. Lehenengo grafikoan ikus daitekeenez, lagineko hiztun gehienak 25-64 urte bitartekoak (%45,1) dira. Ondoren, 2-14 urte bitartekoak (%30,1) eta 64 urtetik gorakoak (%15,2) behatu ditugu gehien. Azkenik, 15-24 urte bitartekoak dira (%9,5) laginean pisu gutxien duten hiztunak. Beraz, jasotako elkarrizketa gehienak haur, gurasoen eta adinekoen artekoak izan direla ondoriozta dezakegu hiru adin-taldeko hiztunak batuz ia lagin osoa osatzen baitute (%90,5 hain zuzen).

Laginaren eta unibertsoaren arteko alderaketa eginez, desoreka ikus daiteke, batez ere, haurren kasuan. Izan ere, laginean %30,1a osatzen dute haurrek eta errealitatean %13,7koa dute (ia hogeit puntukoa aldea beraz). Helduen kasuan ere desoreka garrantzizkoa ikus daiteke, unibertsoarekin alderatuta

(%59,8 hartzen dute bertan) laginean hamar puntuko tartearekin baxuagoa da (%45,0). Aldiz, nabarmentzekoa da gazteen eta adinekoen arteko ehunekoa ia bera dela behatutako populazio laginean eta unibertsoaren artean.

Aipaturiko desoreka horiek kontuan hartzeko modukoak dira, batez ere, ordezkartza handia dutenen portaerak bere aldera pisu handiagoa ezarriko baitu datuen emaitzetan. Eta hori kontuan hartzekoa izango da datuak interpretatzerako orduan.

1. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA, UNIBERTSOAREKIN ALDERATUZ OIARTZUN, 2011-2016




	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2-14 urte	1.272	30,1	1.337	13,7
15-24 urte	403	9,5	935	9,6
25-64 urte	1.906	45,1	5.834	59,8
>64 urte	649	15,3	1.649	16,9
GUZTIAK	4.230	100,0	9.755	100

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016. Unibertsoa: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011.

Sexu osaera

Bestetik, komenigarria da sexuaren arabera lagina nola osatzen den kontuan izatea honek ere emaitzen interpretazioan eragina izan baitezake.

2. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. OIARTZUN, 2016 (%)



	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Emakumezkoak	2.171	51,3	4.912	50,3
Gizonezkoak	2.059	48,7	4.843	49,6
GUZTIAK	4.230	100,0	9.755	100

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016. Unibertsoa: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011


Bigarren grafikoan ikus daitekeenez, Oiartzungo biztanleriaren %50,3 emakumezkoak eta %49,6 gizonezkoak dira EUSTAT-en 2011ko erroldaren arabera, oso tarte txikia beraz, bata eta bestearen arteko ehunekotan. Laginean ere, tarte zertxobait handiak bada ere (%51,3 emakumeak %48,7 gizonezkoak) esan daiteke puntu eta erdi hori ez dela oso esanguratsua. Beraz, emaitzen interpretazioan ez dirudi oso kontuan hartzeko datua denik honako hori.

3. Erabilera Oartzunen, 2016. urtean: emaitza orokorra

3.1 Hamar elkarrizketetatik ia sei euskaraz


Oartzungo kaleetan entzundako 10 elkarrizketetatik ia sei, %58,8 zehatzago esateko, euskaraz izan dira. Gainerakoak gaztelaniaz (%40,3) zein beste hizkuntza batzuetan izan dira (%1,0) 2016ko irailean eta urrian egindako neurketaren arabera.

3. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. OIARTZUN, 2016 (%)



	Kop.	(%)
Euskaraz	2.842	58,8
Gaztelaniaz	1.701	40,3
Beste hizkuntzetan	41	1,0
GUZTIRA	4.224	100

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.



Horixe da 2016eko irailean Oairtzungo herrian egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin dugun (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, **1.449 elkarrizketa** behatu ditugula Oiartzunen, eta **4.230 lagun** izan direla guztira elkarrizketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori **9.755 hiztun** dituen herri batentzat². Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen **%58,8ko** datu horri **±%2,56ko akats-tartea** dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan³. Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

3.2 Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila

Ehuneko 58,8koa da, hortaz, euskararen erabilera⁴ Oiartzunen. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta euskaldun-kopuru horretatik “espero daitekeen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

Oiartzuarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2011. urtean egindako *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren* arabera, biztanleriaren %73,9 euskalduna zen Oiartzunen. Beste zati batek (%16,0), euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen-mailan behintzat, eta gainerako %10,1 erdalduna zen⁵, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Oiartzungo herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak.


² Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2011.

³ Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako Soziolinguistika Klusterrak berriaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.eus/lagina/eskaera/kale-erabilera>).

⁴ Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearen ordea, “erabilera” terminoa erabili dugu. Izan kontuan ohar hau kontuan txosten osorako.

⁵ Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderei (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

4. GRAFIKOA eta TAULA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. OIARTZUN, 2016 (%)




	Kop.	(%)
Euskaldunak	7.210	73,9
Ia euskaldunak	1.556	16,0
Erdaldunak	989	10,1
GUZTIAK	9.755	100

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011

Espero daitekeen euskararen erabilera

Udalerrri bateko hizkuntzen erabilaren neurketa abiatzerakoan helburua izan ohi da ezagutzea, zein neurritan erabilera-maila hori euskal hiztun proportzioarekin bat datorren. Hau da, zein proportziotan euskaldunek euskaraz hitz egiten duten testuinguru elebidun edo eleaniztun batean. Hizkuntza-erabilaren konplexutasuna ulertzeko ekarpen berezia egin zuen J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* 2001 urtean, bere *eredu matematikoa* garatu

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez




zuenean⁶. Eredu horren bitartez, gune elebidun jakin batean *espero daitekeen euskararen erabilera* kontzeptua definitu eta kalkulatzeko modua aurkeztu zuen, honako ezaugarriekin:

- Harreman-testuinguru hipotetiko batean, non eta gizakiek euren arteko hizketaldiak ausaz egingo lituzketen (egoera isotropikoa),
- gune jakin bateko euskaldunen proportzioa kontuan hartuta, eta
- euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutenaren hipotesia emanda (euskararekiko leialtasun erabatekoa),
- Harreman-testuinguru hipotetiko batean, non eta gizakiek euren arteko hizketaldiak ausaz egingo lituzketen (egoera isotropikoa),
- gune jakin bateko euskaldunen proportzioa kontuan hartuta, eta
- euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutenaren hipotesia emanda (euskararekiko leialtasun erabatekoa),
- *espero daitekeen euskararen erabilera (erabilera isotropikoa)* kalkula daiteke,
- honako formularen bidez:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B = euskararen erabilera-maila
 m_B = euskararekiko leialtasuna
 e_x = elebidunen proportzioa
 w_2 = bikoteen pisua
 w_3 = hirukoteen pisua
 w_4 = laukoteen pisua

⁶ Gaiari sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegia, 2001, Hacia una Socio-Lingüística Matemática. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 1998, "Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 28, 51-80 orr.



Esan bezala, *espero daitekeen euskararen erabilera (erabilera isotropikoa)* kontzeptua harreman-testuinguru hipotetiko bati dagokio, eta ez da, beraz, praktika errealari loturiko kalkuluaren emaitza. Nolanahi ere, zalantzarik gabe, *erabilera isotropikoaren* balioak lagun dezake hiztun euskaldun eta ez-euskaldun ez osatutako testuinguruetan, euskal hiztunen hizkuntza-hautua neurri batean ulertzen.

Gure kasuan: Oiartzunen neurtutako erabilera (%58,8 euskaraz) handia edo txikia den balioztatzeko, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tarte kontuan hartuko da (esan bezala, %73,9 ziren euskaldunak 2011n). Aplika dezagun formula hori Oiartzungo errealitateari.

$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,739^2 + 0,22 \cdot 0,739^3 + 0,18 \cdot 0,739^4) = 0,470 = \%47,0$$


Kalkuluak eginda, hortaz, Oiartzunen %47koa da baldintza horietan *erabilera isotropikoa*. Beraz, Oiartzungo biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %47koa da *espero daitekeen euskararen erabilera*.

3.3 Euskararen erabilera Oiartzunen, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu ditzagun grafiko batean orain arte aipatu ditugun hiru datu nagusi horiek:

Bosgarren grafikoan eta 5. taulan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera ezagutzarena baino txikiagoa da Oiartzunen. Zehazki, elebidunen kopurua (%73,9ak) euskararen erabilera baino hamabost puntu altuagoa da (%58,8). Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero “*espero daitekeen erabilera*” dugu. Kopuru hori %47,4koa da Oiartzunen. Horren argitara, Oiartzunen euskararen erabilera errealak (%58,8) baldintza isotropikoetan *espero daitekeen erabilera*ren gainetik dago ia hamar puntu.

5. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILRA ERREALA. OIARTZUN, 2016 (%)



	(%)
Hizkuntza-gaitasuna 2011 (euskaldunen %a)	73,9
Erabilera erreala 2016	58,8
Espero daitekeen erabilera 2015 (kalkulua)	47,4

Oinarria (kasu-kopurua): Hiztunak 9.755, behatutako elkarrizketak 1.449, behatutako hiztun-kopurua 4.230

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Espero daitekeen erabilera-daturako Soziolinguistika Klusterraren kalkulua.

Dena den, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin, adibidez, eta herriko zenbaitekin ez dugu inoiz harremanik izaten). Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela %100ekoa izaten eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten.


Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala “espero zitekeena” baino handiagoa izateak, zeharka, zera adierazi nahiko luke: herriko euskaldunak nahiko trinkoturik bizi direla, eta euren arteko harreman-sarea nahiko bizia eta aberatsa dela. Horrela, egunerokoan euskaldunek erdaldunekin erlazio gutxiago izaki, euskararen erabilera estatistikoki espero den baino handiagoa da. Horrez gain, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere bada datu hori.

4. Erabileraren bilakaera Oiartzunen (2001-2016)

4.1 Euskararen erabilera-datua ez da aldatu azken bost urteetan


Oiartzungo kaleetako hizkuntza-erabilera bost aldiz neurtu da. Bilakaera aztertzeko, beraz, 2001. urtetik aurrera 2016 bitartean bildutako datuak erabiliko dira atal honetan.

6 GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. OIARTZUN, 2001-2016. EUSKARAZ (%)



	Euskararen erabilera (%)	Oinarria (behatutako solaskideak) Kop.
2001	62,8	1.236
2005	58,7	1.260
2008	61,7	1.967
2011	52,9	3.948
2016	58,8	4.224

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzunen hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2005, 2008, 2011 eta 2016.




Goiko grafiko eta taulatan ikus daitekeen bezala, azken hamabost urteotan euskararen kaleko erabilerak zenbait gorabehera izan ditu. Epealdi osoa kontuan hartuta, kaleko euskararen erabilerak lau puntuko jaitsiera izan duela ikus daiteke. Baina garrantzizkoa da ikustea azken bost urteotan sei puntuko igoera gertatu dela, (2011ko %52,9tik 2016ko %58,8ra) aurreko beherako joerari itzulita emanez.

Nolanahi ere, Oiartzungo udalerrian euskararen erabilerak izan duen bilakaera interpretateko kontuan izan behar da bere auzoz auzoko populazioaren banaketa. Izan ere, horietako bakoitzean jasotako laginak ez datoz bat ezinbestean bertako biztanleriaren proportzioarekin, eta beraz, datu orokorrak zertxobait aldenitu daitezke. Gainera, lagina nahikoa izango delako, aurrerago aztertuko da Oiartzungo erdigunea den Elizalde ibilbideko bilakaera (ikus 6.2 atala). Honakoa da auzoz auzo jasotako laginen proportzioa: Iturriotz %8,56 (363 solaskide), Elizalde %36,6 (1.547 solaskide), Gurutze/Karrika/Ergoien %4,6 (193 solaskide), Altzibar %24,4 (1.030 solaskide), Ugaldetxo %14,5 (615 solaskide) eta Arragua %11,4 (482 solaskide)

4.2 Ezagutzaren bilakaera

Euskararen erabilera ulertzeko Oiartzunen interesgarria da aztertzea herritarren hizkuntza-gaitasunak izan duen bilakaera. Ondorengo grafiko eta taulatan ikus daitezke herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, 1986. urtetik 2011. urtera bitartekoak.

7. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. OIARTZUN, 1986-2011 (%)



	1986 (kop.)	1991 (kop.)	1996 (kop.)	2001 (kop.)	2006 (kop.)	2011 (kop.)
Euskaldunak	5.920	6.264	6.674	6.761	6.823	7.210
La euskaldunak	832	942	997	1.148	1.408	1.556
Erdaldunak	1.103	1.022	1.019	988	1.123	989
GUZTIAK	7.855	8.228	8.690	8.897	9.354	9.755
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	75,4	76,1	76,8	76	72,9	73,9
La euskaldunak	10,6	11,1	11,5	12,9	15,1	16
Erdaldunak	14	12,8	11,7	11,1	12	10,1
GUZTIAK	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011.

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera aztertzeko EUSTAT-ek bost urtean behin egiten duen zentsuko datuak erabil daitezke. Oiartzuarren hizkuntza-gaitasuna, zertxobait jaitsi da hogeita bost urteotan (1986ko %75,4tik 2011ko %73,9ra), nahiz eta 2006tik 2011 bitartean puntu bat igo den (2006ko %72,9tik %73,9ra).


La euskaldunak direnek portzentaia, aldiz, bost puntuko igoera izan du 1986ko %10,96tik 2011ko %16,ora. Azkenik kontuan hartzekoa da epealdi berean 4 puntuko jaitsiera izan duela erdaldunen proportzioak Oiartzunen.

5. Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko beste herriekin alderaketa

5.1 Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko herrien kale-erabileraren datuekiko alderaketa


Ondorengo grafikoan, Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta Donostialdean jasotako datuak alderatuko ditugu. Euskal Herriko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako daturik eguneratuenak 2011koak dira, eta Oiartzungo 2016koekin konparatuko ditugu.

8.GRAFIKOA eta TAULA: EUSKAL HERRIKO, EAEko, GIPUZKOAKO, UROLA KOSTAKO ETA ZARAUZKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. ZARAUZ, 2016. EUSKARAZ (%)



Euskararen kale-erabilera 2011/2016	
Euskal Herria 2011	13,3
EAE 2011	16,1
Gipuzkoa 2011	32,7
Donostialdea 2011	20,6
Oiartzun 2016	58,8

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016 eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2011.



Zortzigarren grafikoak eta taulak erakusten dutenez, Oiartzungo euskararen kale-erabilera Euskal Herrikoaren gainera dago (%13,3) baita EAEkotik (%16,1) ere. Gipuzkoako erabilera baino altuagoa ere bada nabarmen (%32,7), baita eskualdeko erreferentzia gisa hartu dugun Donostialdeko erabilera baino (%20,6).


5.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera, Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako, Donostialdeko eta Oiartzungo datuekiko-alderaketa

Orain arte eskainitako datuak apur bat testu-inguratzeko, kontuan har ditzagun eremu bakoitzeko herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasun horren arabera “espero daitekeen erabilera”. Datu horiek 9. grafiko eta taulatan ikus daitezke.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, Oiartzun da nabarmen ehunekorik altuena duena (%73,9), gainerako eremuek baino. Gipuzkoako (%53,2) datutik 20 puntu gorago egonik Oiartzungoa (%73,9), espero izatekoa da erabilera ere nabarmen handiagoa izatea (Oiartzunen %25,8, Gipuzkoan %32,7). Eskualdeko datuarekin alderatuta ere, gaitasunean 30 puntu gorago dago Oiartzun Donostialdearekiko (%43,4). Beraz, erabileran ere tarte nabarmena espero daiteke, eta hala gertatzen da, 38,8 puntuko tarte baitago udalerrri eta eskualdeko datuen artean.

Esan bezala, Oiartzungo euskara-gaitasuna Gipuzkoa zein EAE-ko gaitasunaren gainera dago. Eta hala gertatzen da erabilera isotropikoaren datuarekiko ere. Datu hori EAEn, Gipuzkoan, Donostialdean zein Oiartzunen erabilera errealek behera dago, eta datu hori positiboa da erabileraren normalizazioan. Hala, grafikoan ikusten dugun gisara, euskaldunen kopuruak eta “espero daitekeen erabilerak” alderatuz ere, ondorio bera ateratzen da: Oiartzunen altuagoak dira datu horiek. Ondorioz, ia egoera anisotropiko baten aurrean egon gintezke, eta horrek, euskaldunen artean biltzeko joera nabarmena eta euskararekiko atxikimendua handia adieraz dezake.

9. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EAEKO, GIPUZKOAKO, DONOSTIALDEKO ETA OIARTZUNGO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. 2011-2016 (%)



	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreala 2011/2015/2016	Espero daitekeen erabilera 2011
EAE	37,2	16,1	9,8
Gipuzkoa	53,2	32,7	21,8
Donostialdea	43,4	20,6	13,7
Oiartzun	73,9	58,8	47,0


Iturria: Gaitasunetarako EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Oiartzungo (2016) kale-erabilerarako Soziolinguistika Klusterrak eginiko Hizkuntzen-erabilera neurketak. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.

5.3 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa

Datuok apur bat gehiago testuinguratzeko, Donostialdeko eskualdean aurrez neurketa bereziak egin diren beste bi udalerrirekin alderatu dugu Oiartzungo erabilera orokorra: hain zuzen ere, Hernani eta Usurbilekin. Kontuan izan behar da Hernaniko eta Usurbilgo datuak 2011n egindako neurkei dagozkienak direla, herri horietan 2016an egindako neurketen datuak oraindik argitaratu ez baitira.

Hizkuntza-gaitasunari eta behaturiko erabilerari dagokionean, Oiartzun da hiru udalerriren artean tasarik altuena duena (%73,9); Usurbilek (%69,7) eta Hernanik (%57,3) tasa baxuagoak dituzte. Erabileraren kasuan, Usurbilen erabilera handiagoa neurtu zen (%61,9) eta Hernanin baxuagoa (%39,1).

10.GRAFIKOA eta TAULA: EZAGUTZA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA INGURUKO HAINBAT UDALERRITAN, 2016. (%)



	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreal 2011/2016	Espero daitekeen erabilera 2011
Hernani	57,3	39,1	25,8
Usurbil	69,7	61,9	40,9
Oiartzun	73,9	58,8	47,0


Iturriak: Gaitasunerako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Kale-erabilerarako: 2011ko Hernaniko Usurbilgo eta 2016ko Oiartzungo hizkuntzen-erabileraren neurketa. Espero daitekeen erabilerarako: Soziolinguistika Klusterraren kalkuluak.

6. Zonaldekako emaitzak

6.1 Zonaldeen arabera emaitzak

Herritarrek leku publikoetan zer hizkuntza erabiltzen duten neurtzea xede izanik, herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan egin dugu behaketa. Zonalde horiek zehazteko, udalerriko herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu ohi da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan zer ibilbideri jarraitu behar zaion erabaki, udaleko teknikariek elkarlanean. Oiartzungo kasuan, sei eremutan banatu dugu udalerria. Emaitzak 11. taulan eta 11. grafikoan aurkezten ditugu.

11. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. OIARTZUN, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Iturriotz	Elizalde	Gurutze/ Karrika/ Ergoien	Alzibar	Ugaldetxo	Arragua
Euskaraz	75,5	70,3	67,9	57,0	50,7	19,9
Gaztelaniaz	22,9	28,6	31,1	42,6	48,3	78,6
Beste hizkuntzetan	1,7	1	1	0,4	1	1,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
Oinarria (behatutako solaskideak)	363	1.547	193	1.030	615	482


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2016.


Ikus daitekeen bezala, Iturriotzen jaso da euskararen erabilera handiena (%75,5), eta, ondoren, Elizalden (%70,3) eta Gurutze/Karrika/Ergoien ibilbidean (%67,9). Hiru gune horietako euskararen erabileratik 10 puntu baxuagoa izan da Altzibargoa (%57) eta, tarte handiagoarekin Arraguako ibilbidekoa (%19,9).

6.2 Zonaldeen araberako bilakaera

Oiartzungo euskararen kaleko erabilera orokorraren bilakaera erakutsi da txosten honen 4. atalean, 2001ean hasi eta -metodologia bera erabiliz egindako-bost neurraldian jasotako datuak erakutsiz. Zonaldeen banaketari dagokionean, ordea, ez dira neurketa guztietan ibilbideen diseinu bera jarraitu. Eta beraz, ezin ditugu datuak elkarrekin erkatuz. Arrazoi hori dela eta, soilik 2011eko eta 2016ko ibilbideen araberako datuak alderatuko dira ondorengo grafiko eta taulatan.

12. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011-2016 (EUSKARAZ, %)





	Iturriotz	Elizalde	Gurutze/Karrika /Ergoien	Altzibar	Ugaldetxo	Arragua
2011	63,3	70,2	51,8	34,3	51,8	16,1
Oinarria (behatutako solaskideak)	485	1.694	218	554	363	634
2016	75,5	70,3	67,9	57,0	50,7	19,9
Oinarria (behatutako solaskideak)	363	1.547	193	1.030	615	482

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2011, 2016.

Datuek erakusten dutenez, Oiartzungo sei ibilbideetatik hirutan nabarmenki igo egin da euskararen erabilera: 22 puntu Altzibarren (%34,3tik %57ra), 16 puntu Gurutze/Karrika/Ergoien ibilbideetan (%51,8tik %67,9ra), eta ia 12 puntu Iturriotzen (%63,3tik %75,5ra). Arraguako ibilbidean aldea hain handia ez bada ere, kontuan hartzeko moduko 3 puntuko igoera gertatu da (%16,1etik %19,9ra). Azkenik, bi ibilbideetan erabilera berdina jaso da (tartea esanguratsua ez dela esan daiteke): Elizalden (%70,2tik %70,3ra) eta Ugaldetxon (%51,8tik %50,7ra).


Nolanahi ere, irakurketa honetan, oso kontuan izan behar dugu, metodologia atalean esaten genuen bezala, erabat garrantzizkoa dela ikerketan jaso den laginaren tamaina nahikoa izatea jasotako datua sendoa izateko. Aztertzen ari garen Oiartzungo ibilbideen banaketan, bereziki arretaz hartzekoa da bakoitzean behatutako solaskideen kopurua. Auzoz auzoko ezaugarriek baldintzatuta, hainbat kasuetan oso txikia dela erakusten dute taulako datuek (Elizalde da salbuespena). Bereziki Gurutze/Karrika/Ergoien ibilbidean gertaturikoa da ezaugarri horren adibide garbiena: 218 solaskideren hizkuntza-erabilera behatu zen 2011. urtean eta 193rena 2016. urtean. Lagin horien tamainek agintzen dute gertaturiko aldaketa nabarmenak oso arretaz hartzera: datuok euskararen erabilera kuantifikazio zorrotza baino gehiago, soilik joerak erakusten dituztela esan daiteke.

Auzoz auzoko bilakaera zorrotz aztertu nahi izanez gero, eta lagin txikiaren arazoa zuzentzeko, bi azterketa-mota proposa daitezke: alde batetik, aztertu daiteke euskararen erabilera-datua ponderatzea auzoz auzoko populazio-kopuruaren arabera, horrek lagun dezakeelako datuek duten pisua identifikatzen. Horretarako, jakina, auzo bakoitzeko biztanle-kopurua behar da.

Bestalde, Oiartzungo auzoz auzoko ezaugarri bereziak kontuan hartuta, gomendagarria izan daiteke Soziolinguistika Klusterrak udalerrri txikietarako berariaz prestatuturiko teknika metodologikoa erabiltzea, kasu horietan, auzoz auzoko populazioa eta euskararen gaitasuna-proporzioa kontuan hartuta. Horrek lagunduko luke auzo bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea neurketa-metodoa.

Arestian esan bezala, laginaren tamainaren arabera, Elizaldeko ibilbidea nahiko sendoa da, eta, horrela, bertan gertaturiko erabileraren bilakaeraren berri emateko moduan gara. Horregatik, Oiartzungo erdigune nagusitzat har daitekeen Elizaldeko ibilbidean diseinu berarekin egindako bost neurralditako datuak alderatuko ditugu ondoren, alegia, 2001.urtean hasi eta 2016. bitarteko bilakaeraren berri emanez.

13.GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA OIARTZUNGO ELIZALDE IBILBIDEAN, 2001-2016. (%)



	2001	2005	2008	2011	2016
%	70,9	73,4	65,8	70,2	70,3
Behatutako hiztun kop.	611	598	1.139	1.694	1.547

Iturriak: Soziolinguistika Klustera, Oiartzungo hizkuntzen kale-erabileraren neurketa 2001, 2005, 2008, 2011 eta 2016


Esan bezala, Oiartzungo Elizalde ibilbidean bost aldiz neurtu da metodologia bera erabiliz, eta bilakaeraren berri emateko moduan gara. Goiko grafikoan eta taulan ikus daitekeen moduan, esan daiteke 15 urteko epean, euskararen erabilera bere horretan mantendu dela, lehen 10 urteko gorabeheren ondoren, euskararen kaleko erabilera abiapuntuko datu berean egonkortu dela (%70,9 2011n, %70,3 2016an).

7. Hiztunen ezaugarrien araberako datuak

7.1 Sexuaren araberako emaitzak

12. grafikoan eta taulan ikus daitezkeen datuen arabera, esan daiteke ez dagoela alderik Oiartzunen gizonezkoen eta emakumezkoen arteko euskararen erabileran. Izan ere, 7 dezimako tartea (emakumezkoen %58,5tik gizonezkoen %59,2ra doan tartea) ez da estatistikoki esanguratsua.

14. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. OIARTZUN, 2016 (EUSKARAZ, %)




	Emakumezkoak	Gizonezkoak
	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	58,5	59,2
Gaztelaniaz	40,4	40,0
Beste hizkuntzetan	1,1	0,8
GUZTIRA	100	100
Oinarria (behatutako solaskideak)	2.171	2.059

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

7.2 Sexuaren araberako bilakaera

Sexuaren eraginak ere zerikusia izan ohi du hizkuntzaren erabileran. Kasu honetan, bost neurketa ditugu. Soziolinguistikako Klusterrak egindakoak. 2001ean, emakumezkoen erabilera zertxobait altuagoa zen gizonezkoena baino (%65,9 eta %62,5 hurrenez hurren). Hamabost urte igarota, ordea, zenbait gorabehera ondoren, erabilera horiek bateratzera jotzen dutela esan daiteke, alegia, beraien arteko aldea ia hutsean geratu da: 2016an emakumezkoek %58,5 eta gizonezkoek %59,1)

15. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. OIARTZUN, 2001-2016. (EUSKARAZ, %)




	Erab. orokorra (%)	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2001	64,0	65,9	62,5
		(214 solaskide)	(253 solaskide)
2005	56,3	53,6	59,4
		(336 solaskide)	(293 solaskide)
2008	61,7	64,2	58,5
		(1.095 solaskide)	(872 solaskide)
2011	52,8	52,4	53,5
		(2.074 solaskide)	(1.874 solaskide)
2016	58,8	58,5	59,1
		(2.164 solaskide)	(2.059 solaskide)

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Oiarzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2005, 2008, 2011 eta 2016.

7.3 Adinaren arabera emaitzak

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaeran adinaren arabera aztertuz gero. Herri askotan haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Oartzunen kasuan, ordea, gazteak dira (15-24 urte bitartekoek) euskaraz gehien hitz egiten dutenak, elkarrizketen %76,4 izan baita bildutako datua. Ondoren haurren erabilera da nagusi %75,3, eta, tarte handiarekin, helduak (%49,2) eta adinekoak (%43,9) dira euskaraz gutxien hitz egiten dutenak.

16. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. OIARTZUN 2016 (EUSKARAZ, %)




	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	75,3	76,4	49,2	43,9
Gaztelaniaz	23,3	23,3	49,8	55,6
Beste hizkuntzetan	1,3	0,2	1,0	0,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	1.272	406	1.904	646

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Belaunaldi berriak etorkizunaren aitzindari eta aurrerapen diren heinean, haurren eta gazteen erabilera aurretik izatea da desiragarriena hizkuntzaren berreskurapena lortze aldera. Gaur egun, Euskal Herri mailan ere, belaunaldi gazteak dira gehien hitz egiten dutenak, orain hogeita hamar urte ez bezala.

Ohikoa den moduan alderatu ditzagun ondoren adin-tartearen arabera hizkuntza-gaitasuna erabilera-datuak hurbilagotik azaltzeko asmoarekin. Ondorengo taula eta grafikootan ikus daitekeenez, adinari erreparatuta, badaude aldeak herritarren hizkuntza-gaitasunean.

17. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011.




	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	1.207	872	3.945	1.186	1.207
Ia euskaldunak	100	23	1.226	207	100
Erdaldunak	30	40	663	256	30
GUZTIAK	1.337	935	5.834	1.649	1.337
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	90,3	93,3	67,6	71,9	90,3
Ia euskaldunak	7,5	2,5	21	12,6	7,5
Erdaldunak	2,2	4,2	11,4	15,5	2,2
GUZTIAK	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

EUSTATen datuen arabera, Oartzunen haurren eta gazteen artean hamarretik bederzti dira batz bestea euskaldunak (%90,3 eta %93,3 hurrenez hurren); helduen eta adinekoen kasuan berriz hamarretik sei-zazpi (%67,6 eta %71,9). Ondorioz, belaunaldi berriek gaitasun gehiago duten heinean euskara gehiago erabiltzea litzateke logikoena. Oartzunen kasuan, adinen arteko aldea ez da handia. Helduak dira euskaldun kopururik txiena dutenak, eta horrek eragin dezake, neurri batean behintzat, helduen erabilera baxuagoa izateko.


7.4 Adinaren arabera erabileraren bilakaera

18. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. OIARTZUN, 2001-2016 (EUSKARAZ, %)



	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	62,8	77,8	61,2	49,0	64,8
(Solaskide kop.)	1.352	423	196	529	88
2005	41,3	73,6	63,3	48,6	66,0
(Solaskide kop.)	1.260	348	98	664	150
2008	61,7	80,7	60,8	51,8	47,5
(Solaskide kop.)	1.967	672	130	904	261
2011	52,9	65,7	75,1	43,3	47,2
(Solaskide kop.)	3.948	1.186	285	1.861	616
2016	58,8	75,2	79,6	49,2	43,5
(Solaskide kop.)	4.224	1.268	406	1.904	646

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Oartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2005, 2008, 2011 eta 2016.




Hamabost urteko epealdiari (2001-2016) erreparatzen badiogu adinekoen artean salbu, beste adin-talde guztietan mantendu edo gorakada izan du euskararen erabilerak. Beherakada, esan bezala adinekoen erabilerak izan du, 2001an %64,8ko erabilera izan zuen eta 2016an berriz %43,5ekoa. Gainerakoan, haurren erabilera azken neurketarekin alderatuta igo egin da, %65,7tik, %75,8ra. Gazteen kasuan lehen neurketan, 2001ean %61,2ko erabilera izan zuten, azkeneko neurketan, 2011an %75,1ekoa eta 2016an berriz %79,6koa. Helduen elkarrizketen artean, 2011n %43,3a izan zen euskaraz eta 2016an berriz %49,2a.

Orokorki, erabilerak gora egin duela esanguratsuki esan daiteke haurren eta gazteen artean, helduen artean mantendu egin dela (2001eko %49tik 2016ko %49,2ra) eta adinekoen artean behera egin duela nabarmen (%64,8tik %43,9ra).

Udalerriko euskararen erabilera-datu orokorraren bilakaerarekin eta ibilbideen arabera bilakaerarekin egin dugun bezala, adinaren arabera bilakaera ere berariaz aztertuko dugu Oiartzungo erdigunea den Elizalde ibilbidean.

19. grafikoan eta taulan ikus daitekeen bezala, azken bost urteak kontuan hartuta, nabarmentzeko igoera gertatu da gazteen arteko erabileran (2011ko %84,8tik 2016ko %91,4ra). Behatutako lagina txikia izan arren, esan daiteke, gazteek lehenik datorren goranzko joerari oso sendo heldu diotela. Haurren artean, ordea, bost puntuko jaitsiera izan du, eta ia lau puntukoa adinekoen artean (2011ko %88,8tik 2016ko %83,9ra eta 2011ko %66,1etik 2016ko %62,5era, hurrenez hurren). Azkenik, helduen artean %56 inguruan egonkortu dela esan daiteke euskararen kaleko erabilera.

19. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. OIARTZUNGO ELIZALDE IBILBIDEAN, 2001-2016 (EUSKARAZ, %)



	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	86,5	62,3	58,0	72,7
(Solaskide kop.)	244	138	207	22
2005	81,9	71,0	65,5	88,4
(Solaskide kop.)	166	76	287	69
2008	87,5	82,7	57,0	44,5
(Solaskide kop.)	417	75	519	128
2011	88,8	84,8	56,7	66,1
(Solaskide kop.)	518	164	832	180
2016	83,9	91,4	56,6	62,5
(Solaskide kop.)	509	185	701	152


Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2001, 2005, 2008, 2011 eta 2016.

8. Euskararen erabilera eta haurren presentzia

8.1 Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izan? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adindu) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan?

20. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. OIARTZUN, 2016 (EUSKARAZ, %)




	Haurren artean	Nagusien artean	Haurrak eta nagusiak nahasian
Euskaraz	73,0	45,2	73,8
Gaztelaniaz	26,6	54,1	24,5
Beste hizkuntzetan	0,4	0,7	1,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	534	2.205	1.487

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Datuak ikuspegi horretatik aztertuta, argi geratzen da zein den joera nagusia: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osaeraren arabera. Zehazki, haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean erabilera %73koa da euskaraz. Aldiz, nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, dezente gutxiago erabiltzen dute euskara (%45,2). Haurrek eta helduek batera osatutako taldeetan, berriz, %73,8ra igozten da euskaraz entzuten den euskarazko elkarrizketa-kopurua.


Ikus dezagun ordea haur eta helduen arteko taldeetan zer gertatzen den batzuen eta besteen hizkuntza-portaeretan diferentziarik dagoen. Hau da, talde horietan berdin jokatzeko dute haurrek eta helduek hitz egiten dutenean? Ondorengo grafiko eta taulatan ikus daitekeenez, nabarmentzeko aldea badago batzuen eta besteen arteko hizkuntza-jokabideetan.

21. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. HIZKETAN ARI DENAREN ARABERA. OIARTZUN, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
Euskaraz	73,0	45,2	73,8	69,7	76,0
Gaztelaniaz	26,6	54,1	24,5	29,7	21,8
Beste hizkuntzetan	0,4	0,7	1,6	0,6	2,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	534	2.205	1.487	519	968

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016




Ikus daitekeen bezala, nagusiak (gazteek, helduek eta adinekoek) hurrekin taldeetan daudenean nabarmenki gehiago entzuten da euskaraz hitz egiten (%73,8) nagusiak eurak bakarrik daudenean baino (%45,3). Talde horietan entzuten den euskarazko elkarrizketa-ehunekoa edo hurrek eurak bakarrik egonda entzuten dena parekoa da (%73,8 eta %73 hurrenez hurren).

Talde horietan (haur eta nagusien arteko taldeetan), haurra hitz egiten ari bada, euskararako joera handiagoa izaten da nagusia hitz egiten ari denean baino. Tarte gainera esanguratsua dela ikus genezake: haurra hiztuna bada %76,0koa da erabilera. Nagusia izanez gero %69,7koa. Laburtuz, beraz, esan daiteke, adin-taldeak nahasten direnean euskararen erabilerak gora egiten duela eta kasu horietan haurra bada hiztun aktiboa, oraindik eta nabarmenagoa dela igoera.

8.2 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera

22. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011-2016 (EUSKARAZ, %)



	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
2001	84,3	50,2	71,6	55,6	76,8
2008	87,4	43,6	71,9	50,7	80,3
2016	72,8	45,2	73,8	69,7	76

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo Hizkuntza-erabilera kale-neurketak 2011, eta 2016.

Bilakaera-datuei erreparatu, eta zehazki solas-taldearen arabera osatu daitezkeen elkarrizketen hiru modalitate nagusiei begira, azken hamabost urtetan esan daiteke haurren arteko erabilera izan duela beherako esanguratsu bat 2001eko %84,3tik 2016ko %72,8ra jaitsi baita. Neurri berean ez bada ere, nagusien artean bost puntuko jaitsiera ikus daiteke 2001eko %50,2tik 2016ko %45,2ra. Aldiz, nabarmentzeko aldaketa ikus daiteke haur eta helduen arteko taldeetan nagusiek duen euskararen erabilera, izan ere, 14 puntu igo baita horien arteko euskararen erabilera (2001eko %55,6tik 2016ko %69,7ra).



9. Datu nagusien irakurketa (laburpena)

Atal honetan, Oiartzungo hizkuntzen kale-erabileraren neurketan jasotako **emaitza nagusiak** laburbilduko ditugu.

- Klean entzundako **hamar elkarrizketetatik ia sei** izan dira euskaraz (%58,8), eta lau gaztelaniaz (%44,3). Beste hizkuntza batzuetan erabilera %1ekoa izan da.
- 2011-2016 epealdian sei puntuko igoera nabarmendu da euskararen kaleko erabileran: 2011n %52,9koa izan zen euskarazko erabilera eta 2016an berriz %58,8koa.
- **Elizalden** euskararen kaleko erabilera **ez da aldatu bost urtean**: %70,9 2011n, %70,3 2016an. Gainera, **duela hamabost urteko balio berberetan** dago: **%70,9 2001ean, %70,3 2016an**.
- **Ez da nabarmentzeko alderik gizonezkoen eta** emakumezkoek arteko euskararen kaleko erabileran: gizonezkoen erabilera %59,1ekoa izan da, eta emakumezkoena %58,5ekoa.
- **Gazteak dira** euskara **gehien** erabiltzen dutenak (%76,4). Oso hurbil dago haurren erabilera (%75,3) eta nabarmentzeko tartearekin ondoren helduak (%49,2) eta adinekoak (%43,9).
- **Haurrak bakarrik** (nagusirik gabe) daudenean **%73koa** da **euskarazko** erabilera. **Nagusiek, euren artean** (haurrik gabe) ari direnean, **%45,2an** darabilte euskara. Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, **%73,8ra** igotzen da erabilera.
- Hurrez eta nagusiez osatutako taldeetan, **haurra hitz egiten** ari bada erabilera **altuagoa** da (%76), nagusia hitz egiten ari denean baino (**%69,7**).

Andoainen, 2016ko martxoa.